

BALIO PROPOSAMENA:

Gaur egungo arazo sozial handienetako bati aurre egiteko zerbitzu berri bat eskaintzen dugu, aplikazio batez bideratuta dagoen zerbitzua da. Azken urte hauetan gertatu diren eta egunero komunikazio bideetan entzuten ditugun historiengatik, ondo pasatzeko izan behar luketen jarduerak parrandan ateratzea eta lagunekin egotea bezala, azkenean jarduera arriskutsu batean bihurtu daiteke. Hau da gure zerbitzua erabiltzeko adibide egokienetako eta ohiko bat. Horrek segurtasun eza eragiten digu. Helburu nagusia, erasoei aurre egiteko baliabideak edukitzea eta modu horretara, eraso kopurua murriztea da. Baita ere, bezeroei lasaitasuna transmititzea izango litzake. Aplikazio arrakastatsua izan daitekeela pentsatzen dugu, honek dauzkan aukera anitzengatik. Lau zati oinarritzkoetan banatuta dago:

- “Etxera lagundu” zatia da. Aukera honetan, mapa geolokalizadore bat egongo da eta bertan, zure etxerako ohikoa den bidea ezarrita egongo da. Bide horretatik aldendu ezkerro, gurasoei edo zuk jarritako kontaktu bati abisua pasako dio. Baita, leku jakin batean 15 minutuko edo gehiagoko geldialdia egiten duzunean ere, aplikazioa larrialdi moduan jartzen da. Hala ere, aukera hau nahi duzunean desaktibatu dezakezu, adibidez, betiko planetatik desbideratzen zaren uneetan.
- “Erasotua” atala, eraso bat jasaten ari zaren momenturako prestatua dago. “Erasotua” botoia sakatzen duzun momentuan, larrialdietarako zenbakira deitzen du zuzenean. Horretaz gain, gurasoei ere larrialdi abisua pasatzen die.
- Hirugarren atala “salatu” deitzen da. Gure segurtasuna babestea ondo dago baina besteena babestu baldin badezakegu oraindik hobeto, horretarako dugu “salatu” atala. Zerbait desegokia ikusten badugu, edo eraso baten berri jakiten badugu, momentuan salatzeko aukera ematen du atal honek, egin behar dugun gauza bakarra botoia sakatzea da. Bigarren aukera bat ere badu aplikazioaren atal honek, 016ra zuzenean deitzeko aukera.
- Aplikazio hau laugarren atal batez osatua dago: “besteak” atala. Atal honek dei bat simulatzeko aukera du, hau da, norbaitekin telefonoz hitz egiten zoazela simulatzen du. Baita ere, alarma bat pultsatzeko aukera du, norbait gertu izanez gero, arriskuan zaudela konturatzeko. Azkenik autobus/taxietako ordutegiez osatuta dago.

Gure zerbitzua eskaintzeko aplikazio baten bitartez egingo dugu.